

HERNANI BHI Institutua

DBH 3-4

● /2018-VI-7 osteguna/



IRITZIA

Espageti Hegalariaren Erlijioa

// II

Egileak:

Nahia Peso eta Ane Zaitegi.



«Denboraldi ederra izan da eta azken partiduan liga irabaziko genuela jakin genuenean adrenalina igo zitzaigun!»

Egileak:
Nora Estevez eta
Irati Bilbao

// IV



IRITZIA

Dantzaleku bat baino gehiago

// III

Egileak:

Maidar Zugasti, Garazi Urdangarin, Miren Arrillaga eta Intza Larburu

TTARIA

Ttarlaren 25.urteurrena

// III

IRITZIA

Teknologia

// III

Egilea:

Naia Xin Tolosa

IRTEERA

Pasaian egun pasaz

// III

Egilea:

Julen Beraza



I IRITZIA

Espageti Hegalariaren Erlijioa

Pastafarismoa edo Espageti Hegalariaren Erlijioa, munduan zehar 10 milioi pertsonek praktikatzen duten erlijio protestante bat da, Estatu Batuetan sortua.

Munduko erlijio baketsuena da, denok errespetatzen baititu.

Zergatik sortu zen?

Bobby Hendersonek, erlijioa sortu zuenak, gutuna bidali zion Kansas Estatuko Hezkuntza Kontseiluari, eboluzioaren teoria kentzeko eta kreationismo teoria jartzearen erabakia hartzeko eskatuz, 2005. urte bukaeran. Gutun horietan, azaltzen zuen bere sinesmena jainko batean, zein haragiboladun espageti batean, bere erlijioaren ikurra dena. Horregatik, eskatzen zuen bere teoria ere zientzia klaseetan irakastea.

Nahiz eta, hasieran, erlijio honen helburua kreationismoaren kontra egotea zen, orain, bere printzipioak baditu. Lehena eta inportanteena da Espageti

Hegalariaren munstroak unibertsoa sortu zuela asko edan ondoren, mozkorraldi honek azaltzen du mundua ez dela perfektua. Erljio honen arabera zerua sumendiz beteta dago eta sumendi hauek garagardoa dute barnean. Sumendiez gain, lantegi bat dauka striptease dantzari bezala. Infernua, aldiz, gauza berezitsuak egon arren, aparrik gabeko garagardoa bero dago eta dantzariak sexu bidezko gaixotasunak dituzte. Hondamendi naturalak XIX. mendetik aurrera pirata faltaren errua da, horregatik, ostiraletan, egun sakratuan, pirataz jantzi behar da.

Izango al zinateke erlijio honetako partaide? ■

Egileak:

Nahia Peso eta Ane Zaitegi.



I IPUINA

Kaixo, kuttuna:

Badakit oraindik ez zarela gai izango hau dena ulertzeko, baina noizbait, nonbait eta nolabait iritsiko zaizu adina, non dena ulertuko duzun, eta agian, zure ondoan egongo ez naizen arren, nik irakatsitako balorez gogoratu, eta aurrera egingo diogu elkarrekin, zaude ziur.

Txikitatik ibili izan naiz parketik parkera eta ez dut izan guraso edota familiaren maitasun faltarik.

Bost urte nituela, amesten besterik ez nekien. Mila amets, kolorezkoak, mingarriak, alaiak, distiratsuak... baina guzti-guztiak nire beldur guztien gaintetik jarri ziren beti. Nire beldur handienetako bat, amatxok argia itzaltzerakoan sortzen zen, piztia edota mamu ikaragarriak aterako zirelakoan, begiak itxi gabe, eta gorputza erabat mantarekin estalita egoten nintzen ikaratuta.

Zortzi-hamar bat urte inguru nituela, gauzak ez ziren

asko aldatu. Ni handitu egin nintzen, baina ametsak berriz txikituz joan ziren, beldurren parean geratuz. Mundua irensteko ilusioz nengoen, energia iturri baten antzeko. Lotsa sentitzen ere hasi nintzen, mutil gustukoak begiratzean, gorri-gorri jartzen bai nintzen jada. Inoiz sentitu gabeko beldur sakon bat sentitzen ere hasi nintzen: bakarrik geratzearen beldurra.

Hamabost urtetara oso azkar pasa nintzen, urtetik urtera aldaketa handiagoak sortuta. Ametsak beste alde batera utzita, mila miloi sentimendu gehiago bizitzen hasi nintzen: tristura, haserrea, maitasuna, frustrazioa, laguntasuna... baina hauek denak modu neurrigabea. Nire bizitzaren zati bat festak osatzen zuten, lagunekin ondo pasatzen eta ikasketei ere beharrezkoa den garrantzia ematen. Honekin lotuta, parranda egunetan etxera bakarrik bueltatzean, ikaratzen hasi nintzen, inork min egiteko arriskua nuen eta. Telefonoz

beti ere lagun bati deituta joaten nintzen, eta giltza arma moduan eramaten nuen eskuan, bihotza inoiz baina azkarago joaten zitzaidan bitartean. Gizarte honetan, oraindik matxismo ugari dagoela konturatzen hasi nintzen eta injustizia guztien aurka borrokatu behar genuela ulertu nuen, behar eta nahi genuena lortu arte.

Hogeita bat urte arte, nire heldutasun maila igotzen joan zen, baina nire eguneroko bizitzak ez zuen bereziki aldaketa handirik jasan. Ikasi eta ikasi pasatzen nituen egunak unibertsitean, festa batzuetaz ere disfrutatuz.

Hogeita bat eta hogeita bederatzi urtera dena aldatu egin zen. Nire bizitzak izugarriko jauzia eman zuen, eta ni inoiz baino zoriontsuago izan nintzen. Hogeita birekin nire senarra ezagutu nuen, hau da; zure aita. Hiru urte beranduago, elkarrekin bizitzen ere hasi ginen, elkarrekin miloi bat bizipen sortuz. Oraindik oroitzen dut egun eguzkitsu

batean, medikuarenera joan, eta haurdun nengoela esan zidatenean, momentu pozgarri eta liluragarri hura zuluodun zakuan sartuko ez dudala zin egiten dizut. Bertan hasi ziren arazo eta kezka handienak. Nolakoa izango zinen? Nola joango zitzaigun zurekin? Ezer jakingo genuen gurasoak izateaz?

Beldurrak, ilusioak eta ametsak ardura bikoitza hartu zuten nire bizitzan, eta dudaz mugilduta egoten hasi nintzen, zu jaiotakoan soilik argitu zitezkeen dudak.

Zu jaiotakoan eta urte bete geroago nire bizitzako denboraldi gogorrena pasa nuen: minbizia diagnostikatu zidaten urtea. Beldurrek erabat eraso zidaten. Ahul, indarrrik gabe eta oso triste ikusten nintzen. Familia eta lagunak laguntza ere jaso nuen, baina inork imajinatu ezin ditzakeen sentimendu bortitzak bizi izan nituen garai honetan. Egunk ospitaletik etxera eta etxetik ospitalera pasatzen nituen, eta botiken ondorioz sortutako aldaketak,

konplexu asko sortu zizkidaten. Bestalde, inoiz ulertuko ez duzun arren, aurrera egiten irakatsi zenidaten, aita eta zuk batez ere. Zure irrifarre batek, egun ilunetarako indarrak ematen zizkidaten eta, ikatz batean eguzki izpi bat ateratzen den moduan. Begietara begiratu eta "ama" hitza esaten zenidanean, borrokarako inoiz baino indartsuago nengoela adierazten zenidan, eta aita eta zuregaitik jarraitu behar nuela gogorarazten zenidalako, zure besarkada eta musu bakoitzean, zuek zinenten eta, nire zoriontasunaren arrazoi nagusia.

Baina, azken finean, horrelakoa da bizitza, laztana. Batzuetan gogorra, besteetan zoragarria. Aldapaz beterik, denboraldi bat gora joaten gara eta ondoren berriz behera, azkenean zoriontsua izateko asmoz, geure gailurrera iritsi arte. Geuk ere non dagoen ez dakigun gailurrera, hain zuzen ere. ■

Egilea: Eneka Iribarren

■ IRITZIA

Dantzaleku bat baino gehiago

Hainbat bikote ezagutarazi zituen dantzalekuak 75 urte bete ditu.

Martindegi auzoan dagoen dantzalekuak, 1943. urtetik martxan jarraitzen du egun arte. Garai batean, gazte askoren igande arratsaldetako plana izan ohi zen, eta bertan, orain bezala, dantza eta festa giroa ziren nagusi. Bikote asko Oialumeri eskerrak emateko moduan daude, hura izan baitzen haien maitasun iturri.

Euskal Herrian famatuak diren hainbat musikaririk alaitu dute bertako giroa, eta hernaniarrez gain, inguruko jendeak ere ez du bertako festa galdu nahi izan. Larunbat gauak gaurko gazteez gainezka egoten dira.

Omenaldi moduan, Tolosa ahizpak, Gozategi taldeak eta Anje Duhaldek garai bateko gauak ekarri zituzten gogora. Bertan elkartu ziren herriko eta inguruko Oialume zale zahar eta gazteak.

Oialumek jarrai dezala



beste urte askotan gaur egun arte egin duen lana egiten, gazte askoren bigarren etxea izaten. ■

Egileak: Maider Zugasti, Garazi Urdangarin, Miren Arrillaga eta Intza Larburu

■ IRITZIA

Teknologia

Gizateria asko aurreratu da teknologiaren ondorioz; gaur egun sinestezinak diruditen tresnak existitzen dira, eta egunerokotasunean, gure eskuetan dauden informazio-iturri ugari eskertzen ditugu.

Nola ez, interneten sartzea liburu bat erabiltzea baino errazagoa da, edota ordenagailuz idaztea eskuz idaztea baino erosoagoa.

Zoritxarrez, ordea, bizi garen gizartean umeez lehenago ikasten dute tresna elektriko bat erabiltzen irakurtzen baino; bizi garen gizartean, jendea dudatsu sentitzen da mugikorra etxean uzten duenean, bere gorpuzteko zati bat izango balitz bezala. Gaur egungo mundua nola dagoen ikusirik, galdeztzen diogu gure buruari: gizarte berritik kanpo bizi direnek, informazio gutxiago

dute? Erantzuna, hain zuzen, baiezkoa da. Informazio gutxiago dute, baina ez, ordea, formazio gutxiago.

Internet, mundu berri bat dela kontsideraturik, mehatxu batean bihurtzen ari da guretzat, gizateriarentzat; pantaila soil bati begira doan gizateriarentzat, irakurtzen dituen gezur asko sinetsi eta argazkiez momentuz baino gehiago kezkatzen den gizateriarentzat. Teknologia, gauza on asko izan arren, gizarteari kalte egiten dio, eta horrexegatik gaur egun jendeak ez dauka espiritu kritikorik.

Teknologia gutxiago

erreztea egin digu, gauza asko errazten dizkigu eta gizakiak asmatu duen gauza hobere-netariko bat da, baina arazo larri ugari ekarri ditu; tamalez, Wifi-a duten kafetegiak arrakastatsuagoak izaten dir-elako, mugikor bat edukitzea, etxeetan komuneko papera izatea bezain gertaera arruntean bilakatzen ari delako.

Beraz, guzti honen ondorioz, galdetzen dut: teknologiaren alde onarekin bakarrik geratzea posiblea al da? ■

Egilea: Naia Xin Tolosa

■ TTARLA

Ttarlaren 25.urteurrena

Hernaniko dantza taldeak aurten 25.urteurrena ospatuko du, horretarako, hainbat ekintza antolatu dituzte.

1993an Hernaniko euskal dantza taldea sortu zen: Ttarla.

Geroztik Hernanin euskal dantzak izugarrizko arrakasta izatea lortu zuen eta gaur egun taldeak bizirik dirau. 200 dantzari baino gehiago daukan dantza talde bat da. 2012 an, ikasturte bukaeran hasi ziren emanaldiak ematen eta horrek motibatu ditu gaur egunera arte tradizioarekin jarraitzeko.

Horretarako hainbat ekintza berezi antolatu dituzte aurtengo jardunaldirako; adibidez, dantza taldeko nagusiek apirilaren 13an emanaldi berezi bat eskaini zuten eta bukaeran bideotxo bat jarri zuten dantza taldearen historia kontatzeko. Hurrengo egunean, berriz, txikien txanda zen eta horregatik, txiki-



entzako jokoak egon ziren eta goizari bukaera ona emateko bazkaria egin zuten. Ekainaren 22an, gainera, Ezkiaga pasealekuan egongo dira dantzan, bereziki herritarrei eskainiko diete "emanalditxo" hau. ■

■ IRTEERA

Pasaian egun pasaz

Duela pare bat hilabete Hernani BHI ikastetxeko 3.mailako hainbat ikasle eta irakasle pasaian izan ginen.

Hernanitik trenez joan ginen Herrerara eta Herreratik Trintxerpera oinez joan ginen. Trintxerpen portura sartu eta bertako eraikin batera sartu ginen bertan informazioa jasotzeko. Jasotako informazioa izan zen Pasaian ibiltzen ziren itsasontziak zer garraiatzen zuten eta nora, zer merkantzia mota ibiltzen den eta abar. Trintxerpen bi motorekin Pasaia ezagutzera joan ginen eta gero kanpoaldera aterara ginen. Motorak San Pedroko Albaola edo Untziola museoa eramanez gintuen, bertan baleontzi bat egiten ari

dira dena egurrez. Baleontziak San Juan izena du eta 2013. urtean hasi zen eraikitzen eta 2020. urtean itsasoratzeko asmoa dute. Albaolatik ateratzeko motor hartuz San Pedrorra joan ginen Albaolatik ezin zelako oinez joan lurra erori egin omen zelako eta bidea moztuta zegoelako. San Pedron ordubeteko denbora librea eduki genuen herria pixka bat ezagutzeko.

AHAL BADUZUE ALBAOLA EDO UNTZIOLA BISITATU. ■

Egilea: Julen Beraza

■ KRONIKA INFANTILEN BOLEIBOL TALDEA

«Denboraldi ederra izan da eta azken partiduan liga irabaziko genuela jakin genuenean adrenalina igo zitzaigun!»

Aurten Hernaniko boleibol taldeko neska infantilek lehen postua lortu dute beraien ligan. Boleibolaren munduan eduki duten esperientzia gertuagotik ezagutuko dugu.

Prozesu osoan zehar beherakadak eduki dituzue? Zaudeten postura iritsiko zinetela pentsatu zenuten?

Partiduren bat galtzean tristura apur batekin joaten ginen etxera, baina egia esan gehienak irabazi egin genituen. Postu hau lortzea sorpresa handia izan da guretzat, izan ere, ikastea zen gure helburua, ez irabaztea, horregatik ez genuen inola ere espero iritsi garen lekuraino iristea, baina esfortzua eginez lortu egin dugu.

Nolako esperientzia izan da? Sekulako esperientzia izan da guretzat honaino iristea, eta oso harro gaude egin dugunaz. Gutako asko aurten hasi gara

boleibolean eta hasieran ez genekien baloia jotzen ere. Oso polita izan da aurrerapen hau ikustea eta emaitza honek jokatzen jarraitzeko gogoia piztu digu.

Denboraldi ederra izan da eta azken partiduan liga irabaziko genuela jakin genuenean adrenalina igo zitzaigun!

Guzti honetatik zerekin geratuko zinatekete?

Esperientziarekin eta batez ere ikasitako eta lortutako gauzeekin. Ilusio handiarekin lan egin dugu eta entrenatzailearen aholkuek ere asko lagundu digute. ■

Egileak:

Nora Estevez eta Irati Bilbao



Argazkian, ezkerretik eskuinera, goian, Ainhoa Azabal, Nagore Bengoetxea, Malen Arantzegi, Paula Bilbao, Miren Herrero, Haizea Esnal eta Iraia Yarritu. Behean, Ainhitze Oyarbide, Ainhoa Garin, Aritz San Emeterio, Ane Ortiz eta Naroa Larreta. Entrenatzailea: Aitor

IKASLEEN TXOKOA
INSTITUTUA
DBH 3-4

